

Eskola Kirola Programa Programa de Deporte Escolar

Nº 2
ZBK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



www.gipuzkoa.net/kirolak

I. PROGRAMAREN ANTOLAKETA ETA EGITURA

1º zatia

I. LA ORGANIZACION Y ESTRUCTURA DEL PROGRAMA

1ª parte

Duela aste batzuk Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako ikastetxe, udal, kirol federazio eta klubekin elkarlanean urtero 6 urtetik 16ra bitarteko ikasleei zuzenduta martxan jartzen duen **ESKOLA KIROLA JARDUEREN PROGRAMA** ri buruz hitzegin genuen. “Programaren Antolaketa eta Egitura” deituriko atal honetako lehen zatian Programaren beste berezitasun batzuk aztertuko ditugu (egitura, eskaintzen diren jarduerak zeintzuk diren, partehartzaileak, Programa nortzuk antolatzen duten, e.a.).

Hace algunas semanas os hablamos del **PROGRAMA DE ACTIVIDADES DE DEPORTE ESCOLAR** que la Diputación foral de Gipuzkoa pone en marcha cada año, en colaboración con los centros escolares, los ayuntamientos, las federaciones y clubes deportivos guipuzcoanos dirigido a escolares entre los 6 y 16 años. A través de esta primera parte a la que hemos llamado “La Organización y Estructura del Programa” analizaremos las particularidades del Programa (contenido, las actividades que se ofrecen, participantes, quiénes elaboran el programa, etc.).

Programaren Edukia

Eskola Kirola programa lau jarduera motatan egituratua egoten da helburu ezberdinen arabera:

Guzti-Guztientzat

Sustapen jarduerak:

6 eta 16 urte bitarteko ikasle guztiei zuzendutako jarduerak dira, eta kirol modalitate desberdinetan hasteko nahiz hobetzeko ikastaroak izaten dira.

Lehiaketa hezitzaile eta jolasgarriak:

Ikasleek 8 urte dituztenean hasten dira, benjaminetan alegia, eta amaitu 16 urte egiten dituztenean, kadete izateari uzten diotenean.

Errendimendurako gaitasuna dutenentzat

Teknifikazio jarduerak

11 urtetik aurrera hasten dira, umeak alebinetako bigarren urtean daudenean, kirol mota desberdinak ezagutu eta probatu dituztenean eta kirol teknikariek errendimendurako ezaugarriak ikusten dizkietenean.

Errendimenduan hasteko lehiaketak:

Banakako kirol batzuetan 11-12 urterekin hasten dira (alebin kategoriako 2. urtean), eta taldekako kirol batzuetan 12-13 urterekin (infantiletan).

Contenido del Programa

Se ofrece un Programa estructurado en **cuatro clases** de actividades en función de los objetivos :

Para todos/as los/as escolares

Actividades de Promoción:

Dirigidas a escolares de entre 6 y 16 años, son cursos de iniciación o perfeccionamiento de diferentes modalidades deportivas.

Competiciones formativo-recreativas:

Comienzan a los 8 años en categoría benjamín y concluyen a los 16 años en categoría cadete.

Para escolares con cualidades para el rendimiento

Actividades de tecnificación:

Comienzan a partir de los 11 años, esto es, 2º año categoría alevín, una vez que los/as escolares han conocido y practicado distintas disciplinas deportivas y los técnicos detectan cualidades para el rendimiento.

Competiciones de iniciación al rendimiento:

Empiezan con 11-12 años en algunos deportes individuales (2º año categoría alevín) y 12-13 años en algunos deportes colectivos (categoría infantil).



> Gipuzkoako hainbat hondartzetan antolatzen diren futboleko txapelketak Eskola Kirola Programako ekintzen parte dira.

> Las competiciones de fútbol para escolares que se celebran en las playas guipuzcoanas forman parte del Programa de Actividades de Deporte Escolar.

HURRENGO ZENBAKIA / PROXIMO NUMERO

I. PROGRAMAREN ANTOLAKETA ETA EGITURA

2. zatia

I. LA ORGANIZACION Y ESTRUCTURA DEL PROGRAMA

2ª parte